


## Hizkuntza politika



Snowdon, Llyn Padarn-etik



Elurra, Perhyn Du.  
Kyffin Williams

**Galeseraren  
Kontseilua**

**Politika soziala  
eta hizkuntza**

**Hezkuntza**

**Komunikabideak**

Català

Galego

Euskara


Elsässisch



**Kontseiluaren eginkizunak**

**Plangintzaren filosofia**

**Lehentasunak**





Bereizketa egin beharra dago legezko bitartekoen bidez garatzen den hizkuntza politika baten eta gizarte politikako neurri baten gisara garatzen den beste baten artean. Erresuma Batuko legeriaren barruan, gobernu zentralaren betebeharra da hori eta legeria horretan Galesi egiten zaion aipamen bakarra Galeserari buruzko Legean agertzen da. Galeseraren Kontseilua Lege hori garatzeko sortu bazen ere, ez da hizkuntz plangintzarako eragile bat. Kontseilukideak funtzionarioak dira eta ez hizkuntz plangintzan adituak diren pertsonak. Haren agintea mugatua da. Azken bolada honetan, hizkuntza sustatzeko fondoak administratzearen erantzukizuna eman zaio, orain arte Galesko Bulegoak, estatuaren administrazioak Galesen duen agentzia nagusiak egiten baitzuen lan hori. Fondo horien barruan argitalpenak, kultur jardueren finantziazioa eta beste batzuk sartzen dira, baina ez dute gauza berriak egiteko ahalmen handirik, Galesko Bulegoak antolatzen zituen jardueren jarraipena izateko joera baitute. Hezkuntzaren arloan ere badute eragina, galesera-irakasle ibiltariak ordaintzeko fondoak barne hartzen baitituzte.



Galeseraren Kontseiluaren filosofia herrialdeen garapenerako eredu neoliberal ortodoxoaren zuzeneko ondorioa da, komunitatearen garapenari begira dagoen eredu baita. Herriaren partehartzea islatu eta bultzatzen duten elkarteak sortzea du xedea, ahal den neurrian sektore pribatua barne hartu eta enpresa mota guztiak hizkuntza bultzatzeko lanetan inplikatzeko dituzten elkarteak osatzea. Komunitatearen garapenarekin duen parekotasuna “Mentrau” delakoan sorreran ikusten da, alegia, herrialdeko enpresen inguruan antolatutako hizkuntza enpresak. Agentzia horien helburua da gizarte eta kultur jarduerak sustatzen dituzten sare lokalak sortzea, galesera erabiltzen dutenak eta komunitateak hizkuntza bultzatzea dezan oinarrizko marko bat ezartzeko balio dutenak. Alde batzuetatik ikusita, “kultur menpekotasun” batetik autosustapenerako joerarantz eman den aldaketa islatzen du, bertan giza baliabideen erabilera, komunitatearen garapenaren erretorikaren ezaugarria dena, barne hartzen baita. Beraz, estatuaren partehartzea gutxitzea da kontua, eta komunitatearena bultzatzea, estatua izan ez dadin kultur ongizatearen eta hizkuntza mantentzearen erantzule. Alderdi horretatik, kontua da “bidea ematea hizkuntzak bere baitan aurkitzeko Galesko komunikaziorako tresna izateko modua”.



Kontseiluaren jardunean sei arlo nagusi ditugu:

- I) Galeserak ingelesak duen estatusa lortzea estatuaren administrazioan. Arazoa da estatuaren ikuspegia eta Europako legeria bateratzea galesera agiri ofizialetan erabiltzeari dagokionez. Alderdi tekniko horretaz gain, erabilera normalizatzeko presio-talde gisara funtzionatu behar du. Galesera Galesko hizkuntzatat eta ingelesa Britainiako hizkuntzatat hartzeko joera da arazoa, eredu horren ondorioz zailago gertatzen baita bi hizkuntzentzat maila berdina ezartzea.
- II) Galeserazko erdi mailako irakaskuntza etxe guztien esku jartzea, gurasoen nahien arabera. Behar diren baliabideak bermatzea.
- III) Estandarizazioa, terminologiaren estandarizazioaren bitartez.
- IV) Baimen printzipioa praktikara eramatea, publizitate kanpaina zabal baten bidez. Joerak aldatzeko ariketa gisara sortu da, horrek praktikan ere aldaketa ekarriko duelakoan.
- V) Hizkuntzaren sustapena eta komunitatearen garapenaren printzipio ekonomikoak lotzea.
- VI) Galeserari buruzko informazioa zabaltzea, eta horretarako, estatuko estatistika zerbitzuari presioa egitea, Britainia Handiko beste herrialdeetan duten galesera-ezagutzari buruzko informazioa bil dezan.



Hizkuntza politika

Politika soziala  
eta hizkuntza



Galeseraren Kontseilua

Hezkuntza


Komunikabideak


Gizartearen administrazioa  
eta hizkuntza

Gizartearen administrazioaren  
pribatizazioa

Ikuspegi positiboak

Plangintza eta hizkuntza






Gizartearen administrazioaren pribatizazioa

Ikuspegi positaiboak

Plangintza eta hizkuntza

Treorchy (Rhondda)

Politika soziala modu desberdinetan garatu ahal da gobernu lokalaren maila desberdinetan eta haiei elkartutako erakundeek hizkuntz politikak aurrera eraman dituzte. Orain dela gutxi arte, agintari lokalek autonomia handia zuten eta horietako batzuek galeserari buruzko politikak garatu zituzten bitartean, beste batzuek alde batera utzi zuten arazo hori. Galeserari buruzko 1993ko Legeak erakunde publiko guztiak behartzen ditu horrelako politikak aurrera eramateko, baina agintari lokal batzuek legeak agintzen duenaz haraindi joan eta hizkuntzarentzako batzorde iraunkorra sortu dute. Garapen horren arabera, Galeseraren Kontseiluak, estatuak izendatutako kideak dituen erakundea izanik, agintea dute hautatutako erakunde baten gainean. Ez dirudi aginteak eta legeek bat egiten dutenik eta tirabira handiak sortzen dira protagonisten artean. Gaur egun, desberdintasun handiak daude Galesen hizkuntzaren eta politika sozialaren arteko harremanei dagokienez. Agintari batzuek galeseraz egiten dute beren jarduera gehienetan eta galeseraz hitz egiten ez dutenak arau horren desbideratzeztat hartzen dituzte. Aldi bereko itzulpenak egiteko instalazioak egin dira eztabaida publikoa errazteko. Beste agintari batzuek, ordea, ez dute bide horretatik joan nahi.




Gizartearen administrazioa  
eta hizkuntza

Ikuspegi positaiboak

Plangintza eta hizkuntza

1970etik aurrera, galeseraren presentzia administrazio publikoan handitu zen. Aurrerapen horiek direla medio, handitu egin dira jendearen itxaropenak eta hiritarrek administrazio publikoan galeseraz egiteko ohitura hartu dute, erabilera instituzionalizatu egin baita. Ez da prozesu erraza izan eta Galesko hainbat aldetan burutu gabe dago oraindik ere. Arazo garrantzitsu bat badago, alegia, zerbitzu publikoari begira dagoen sektore publiko batetik merkatuari begira dagoen sektore pribatu batera aldatzeko modua. Hizkuntza minorizatu batez mintzatzen diren hiztunen kopuru murrizak nekez aterako du onura joera horretatik. Horrek esan nahi du galeseraz hitz egiten duten agintari lokalen boterea gutxitu egin dela. Gizarte langileek eta gainerako arlokoek erabiltzaileekin dituzten harremanak galeseraz izateko beharra azpimarratu duten gizarte zerbitzuek indarra galdu dute sektore publikoaren barruan eta merkatuari begira dauden erakundeek gero eta garrantzi handiagoa dute eta horietako asko ez dira iritzi berekoak hizkuntzari dagokionez. Kontsumitzaileari aukeratzeko bidea ematen zaio baina aukera egiteko ahalmen hori ez da hizkuntzara hedatzen.





Gizartearen administrazioa  
eta hizkuntza

Gizartearen administrazioaren pribatizazioa

Plangintza eta hizkuntza

Gertatu denaren alderdi positiboa egoera bat da, non agintari lokalek, zerbitzu elebiduna ematerakoan, lehentasuna ematen baitiote galeserari. Agiri guztiak bi hizkuntzetan argitaratzen dira, eta galeserari lehentasun sinbolikoa ematen zaio. Jendeak eskubidea du aukeratutako hizkuntzan zerbitzua jasotzeko. Langileak bultzatu egiten dira barne administrazioan galesera erabil dezaten. Dena den, langileek nahi duten hizkuntza erabil dezakete, beti ere “barneko harremanen eraginkortasuna kaltetu gabe”. Horren arabera, nahiz eta langile guztiek izan galesera ikasteko aukera, aski da departamentu batean galeseraz hitz egiten ez duen pertsona bat egotea harremanetarako hizkuntza, eta, beraz, administrazioarena, ingelesa izateko. Testuinguru formal batean, gauzak aldatu egiten dira, aldi bereko itzulpenak egiteko erraztasunak baitaude eta horrek bide ematen du bi hizkuntzetan hitz egiteko. Horrek laguntza handia eman du galesera ofizialki instituzionalizatzen.

## Hizkuntza politika

## Politika soziala eta hizkuntza

## Plangintza eta hizkuntza



Gizartearen administrazioa  
eta hizkuntza

Gizartearen administrazioaren pribatizazioa

Ikuspegi positaiboak

Galesera sektore publiko eta pribatuan erabiltzeko problema handi bat da Galesko zuzendarien klaseko asko, gehienak ez badira, kanpotik etorriak direla. Horrek mugatu egiten du harremanetarako hizkuntza aukeratzeko bidea. Askotan agertu da bitarteko elebidun bat jartzeko beharra ingelesaz egiten duen zuzendarien eta galeseraz mintzatzen diren langileen artean. Hala zuzendariak nola langileek galeseraz hitz egin dezaten egin diren saioek ez dute arrakastarik izan, arrazistak izatea leporatu baitzaie. Malgutasuna bultzatu eta lanaren zuzeneko zuzendaritza egiteko gaur dagoen joera nekez bete daiteke galeseraz hitz egiteko gaitasunik ez duten zuzendari batzuekin. Gauza bera gertatzen da Galeserari buruzko 1993ko Legearen arabera, jendeari galeseraz mintzatzeko bidea eman behar dioten erakunde publikoekin, horietan egin den gauza bakarra “galeserazko arazoei” buruz aritzeko langile batzuk kontratatzea izan baita.

Lana galeseraz aritzeko bide gisara erabiltzearen kontrako joera egon da. Baina aintzat hartu da etxebizitzari dagokionez, parte batean, ingelesek etxe asko hartu dituztelako, gehienbat turismoa egiteko. 1960ko hamarkadan Ingalaterratik joandako inmigrazio handiari ere lotua dago, eta horrek hizkuntza lokaletan izan zuen eraginari. Gobernu zentrala prozesu horretan parte hartzearen kontra egon da, lan indar mugikorra izateko ekonomia kapitalistak duen beharraren kontra egongo litzatekeelako. Hala eta guztiz, kontrol motaren bat ezartzeko eskaera handia izan da. Nolabaiteko konpromisoa lortu da, Estatuko Idazkaria prest baitago hirigintzak hizkuntzaren gainean duen eragina kontuan hartzeko.



Lehen Hezkuntza

Bigarren Hezkuntza

Goi mailako Hezkuntza




Biluzi urjauzian  
Augustus John.

Galeseraren Kontseilua

Politika sosiala eta  
hizkuntza

Komunikabideak





Bigarren Hezkuntza

Goi mailako Hezkuntza

Ebenezer  
Mynydd  
Bodafon

Lehen eta bigarren mailako hezkuntzaren administrazioa agintari lokalen esku egon da. Hezkuntzari buruzko 1944ko Legeak bide eman zuen galeserazko erdi mailako irakaskuntzako ikastetxeak sortzeko, lehena 1947an sortu baitzen. Galesera-hiztun gutxi zituzten eskualdeetako agintari lokalek saio bereziak egin zituzten ikastetxe horiek lehen mailako hezkuntzan sortzeko, H1 hiztunek irakaskuntza ama hizkuntzan jasotzeko aukera izan zezaten. Dena den, galesera lana aurkitzeko funtsezko tresna bilakatu zenez gero, H2 hiztunak prestatzeari ekin zioten, gaur egun Galesko alde askotan, ikastetxe horietako ikasle gehienak galeseraz hitz egiten ez duten familietatik badatoz ere. 1974an galesera erabiltzen zuten ikastetxeak hirurogei ziren. 1971n, "Mudiad Ysgolion Meithrin" sortu zen, galeserazko eskolaurreko hezkuntza sustatzen zuen mugimendua eta 1992an, 600 ikastetxe baino gehiago zeuden, 10.000 ikasle inguru biltzen zituztenak. Ikastetxe horietan amak eta umeak biltzen ziren galesera ikasteko. Lehen Hezkuntza osoa galeseraz egiten da eta murgiltze ikastaroak badaude galeseraz jakin gabe hasten direnentzat.



Bigarren mailako hezkuntzan ere handitu egin da galeserazko eskaintza. Galeserazko erdi mailako lehenbiziko irakaskuntzako ikastetxea 1956an sortu zen. Seguru aski, Galesko biztanle gehienak daude erdi mailako irakaskuntzako hogeita lau ikastetxe elebidun edo galeseraz irakasten duten hemezortzi ikastetxe baten eragin esparruaren barruan, ingelesezko erdi mailako irakaskuntzarako eskatzen dena baino gehiago bada ere. Hezkuntzari buruzko 1988ko Legeak ezarri zuen galeserak Galesko Ikasketa Plan Nazionaleko oinarrizko irakasgaia izan behar zuela eta horren arabera, erdi mailako irakaskuntzako ikastetxe guztietan galesera irakatsi behar dute 16 urte bete arte. Horrek baliabideak handitu beharra ekarri du.



Galesko goi mailako irakaskuntza sei kanpus dituen Unibertsitate federal baten bidez administratzen da. Agintari lokalen kontrolatik at dago. Ikasle gehienak Galesetik ateratzen dira goi mailako irakaskuntza jasotzeko eta ikastetxe horietako galesera-hiztunen kopurua ez da oso handia izaten. Galesko Unibertsitatea ez da agintari lokalak bezain aktiboa izan maila ertaineko hezkuntza emateko orduan. Ikasleek ekimen batzuk bultzatu dituzte baina irakasleen aurkakotasuna aurkitu dute askotan, gehienak ez baitira galesak. Hirugarren mailan oso ikasle gutxi ikasten dute galeseraz. Galeseraz irakasten duten unibertsitate-irakasle batzuk izendatu dira, baina gutxi. College delakoak positiboagoak izan dira arazo horretan eta College Digital bat sortzea, telebista digitalak eskaintzen dituen zerbitzuen zati gisara, garapen positiboa izan daiteke maila honetan.



Hizkuntza politika

Komunikabideak

Historia

S4C

Komunikabideak eta ekonomia

Argitalpenak

Galeseraren Kontseilua

Politika sosiala eta hizkuntza

Hezkuntza





S4C

Komunikabideak eta ekonomia

Argitalpenak

Snowdon desde Fachnen

Irrati difusioan ere garapen legal eta politikoak eman dira galeseraren erabilerari dagokionez. Irratiak hiritarren bizitzan duen eragina hain da handia, non galeseraren erabilerarentzat mehatxua zela pentsatzera ailegatu baitzen. Kezka horren ondorioz, galeserazko BBC bat sortu zen 1937an, galeserazko irrati saioak emateko. 1953an Irrati-difusioaren Kontseilua eratu zen Galesen. 1970ean VHF sortu ondoren, 1997an, galeserazko emisio berezia agertu zen eta galeserazko kanal bat -Cymru Irratia-, 1979an. Cymru Irratiak 130 orduz emititzen du, 90 galeseraz eta gainerakoak ingelesez. Bertako irrati komertzialetan badira galeserazko emanaldi batzuk. 1950ean hasi zenetik, galeserazko saioak eman ziren. Dena den, 1960a arte, etxeen % 60k zuten telebista. 1969an errepikagailuak jarri ondoren, kopuru hori % 92koa zen. Galesko BBC 1964an sortu zenean, astean 12 orduz eman behar zuen, erdia galeseraz; garai hartan, irrati komertzial batek 5 ordu eta erdi ematen zuen galeseraz. Irrati saio gehienak ez ziren entzule asko biltzen zituzten orduetan ematen, galeseraz hitz egiten ez zuten pertsonak ez molestatu arren. Pertsona horietako askok erabaki zuten emisioak Ingalaterratik jasotzea, galeserazko saioei ezezik, Galesi buruz ingelesez ematen zirenei ere ihes egiteko. Emisioak desadostasunerako gai bihurtu ziren. Eztabaidak piztu ziren zerbitzu elebiduna galeserara ohitzeko tresnatzat hartzen zutenen eta galeserazko emisioetarako kanal berezi bat eskatzen zutenen artean.





1982an, S4C agertu zen, galeserazko kanal bat. Zerbitzu hori eskatzeko galesera-hiztunek burututako desobedientzia zibileko kanpaina baten ondorioa zen. Horrek galeserazko telebista-industria handia sortu zuen, saio mota guztiak produzitzen zituena, drama, gaurko gaiak, etab. Saioak, S4Crentzat lan egiten zuten konpainia txikiek produzitzen zituzten, kanal hori ez baitzen berez produkzio kanal bat. Gainera, BBCk eta HTVk -konpainia komertzial nagusiak-galeserazko saioak produzitzen zituzten. Gaur egun, S4Ck astean 30 bat orduz emititzen du, entzule askoko orduetan.



Galesera-hiztunei zuzentzeko politikaren ondorioz, Galesko emisioek badute galeseraren kutsua, eta horrek haserretu egin ditu galeseraz hitz egiten ez duten asko. Horrek bultzada eman dio galesera-hiztunen mugikortasun sozialari. S4C kanalak, seguru aski, aldaketa handia ekarri zion galeseraren ekonomiari. Gizartean mailaz igotzeko bidea izan da askorentzat, esatari eta kameralari asko produktore bihurtu baitira egun batetik bestera. Produktzioarako konpainia txikiak ezarri diren aldeetan, eragina izan du bertako lan merkatuan eta ekonomian. Antzerkiaren eta ikuskizunen arloak ere aldatu egin dira, telebistarik gabe existituko ez liratekeen lanbideetan aritzen baitira galeseraz aktore eta musikari asko. Horren ondorioz, handitu egin da hizkuntzaren prestigioa eta galesera ikasteko gogoia piztu jende askorengan. Bestalde, ezinikusia sortu da galeseraz egiten ez dutenen artean.



Irrati difusioa zabaldu den bitartean, argitalpenek behera egin dute. Hori, neurri desberdinetan, hizkuntza guztietan gertatzen da, argitalpenen funtzioak aldatzen diren heinean. XIX. mendeko kazetaritza industria arrakastatsuak irakurleen beherakada bat pairatu du, produkzioa berpizteko egin diren saioak gorabehera. 1950eko hamarkadan, argitalpen berri batzuk agertu ziren, galeserazko literaturakoak batez ere. Arteen Kontseiluak, Galeseraren Batzordearen bidez, argitalpen horietarako dirulaguntzak ematen zituen 1945ean agertu zenetik. Erakunde hori zatitu egin zen eta 1967an Galesko Arteen Kontseilua sortu zen, proiektu horiek finantzatzen segitzeko. Argitalpen horien tirada ez zen milako bakar batzuk baino handiagoa izaten. “Papurau Bro” izeneko albiste lokalen orriak ere aipatu behar dira. Lehena Cardiffen agertu zen 1973an. 1992an 50 argitalpen agertzen ziren horren inguruan, boluntario lokalek idatziak eta produzituak. Haietan biltzen dira esamesa lokalak eta pertsona eta gertakizunei buruzko informazioa. Inkesta baten arabera, haien kopurua gutxitu egin da, baina 200.000 irakurle baino gehiago dituzte eta eskuz esku pasatzen da komunitate lokalen barruan. Galesen argitaratutako liburuen heren bat umeentzakoak edo eskolakoak dira. Poesiaren entzute handiaren eta haren garrantzi sinbolikoaren ondorioz, gainerako argitalpenen erdia poesia liburuak dira. Galeserazko eleberriek ere harrera ona dute eta ongi saltzen dira. Elektronikaren aurrerapenek bere korpus berezia osatu dute: hiztegi ortografikoak eta gramatikak, hala nola multimedia sektorearen garapena, Gales Informazioaren Gizartera eramateko bidea dena.